Tanto si se trata de subvenciones ordinarias como de subvenciones para actividades o proyectos de carácter puntual, además de los documentos y datos relacionados en el presente anexo, el Ayuntamiento podrá, en atención a cada caso concreto, requerir al solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración de conjunto del proyecto presentado.

**Lugar y plazos de presentación de solicitudes:**

Las solicitudes deberán presentarse en el Registro General del Ayuntamiento con al menos un mes de antelación respecto a la fecha de inicio de la actividad.

## IRAGARKIA

2007ko azaroaren 29ko osoko bilkuran hasieran onetsi zen diru-laguntzen emakidak arautzen dituen Ordenantza Nagusia. Horri buruzko erabakia jendaurrean azaldu da, eta inork ez du erreklamaziorik aurkeztu horretarako ezarritako epean. Beraz, behin betiko erabakia izango da, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatu duen Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikuluko c) letran xedatutakoaren arabera. Ordenantza hau, beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea amaitutakoan sartuko da indarrean, testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da ordenantza behin betiko onesteko erabakiaren kontra, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzietako salan; 2 hilabeteko epea egongo da horretarako, gau hau argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

### **DIRULAGUNTZEN EMAKIDAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA NAGUSIA**

#### **ZIOEN AURKEZPENA**

I. Berango udalerriko egitura soziala egunero gero eta gehiago hazten da kuantitatiboki eta batez ere bere komunitate, partaidetza eta konpromisoko kontzientzian, bizimodu modernoa murgiltzen den eremu konplexuetan: kultura, solidaritatea, berdintasuna, kirola, borondatezko lanak, ingurugiroa eta gizarte eta kulturen arteko elkar bizitzako guneen artikulazioa, gizarte parte-hartzea eta herritartasunaren eraikuntza...

Sustapen sozial honen ondorioz, Udalerrian garatzen diren gizarte ekimeneko programa eta jarduerak eskatzen eta hartzen dituzten pertsonen kopurua gero eta handiagoa da.

Baina, bestalde, beste hedaduretan erabat orokortzen hasi dena ere hasi gara atzematen: boluntarioak gutxitzen hasi dira, besteak beste, indibidualismoa aurrera doalako, elkarteen egoera ekonomikoa latza delako, gestioa oso konplexua delako... horrek guztiak euren lana zailtzen dute, motibazioa galduz.

Berangoko Udala ohartu da burututako jarduera balio erantsi garrantzitsua dela Udalerriko gizartearentzat, bai egileentzat edo zuzeneko sustatzaileentzat eta bai horien onuradunentzat. Horregatik, aurrekontuetako partidak gero eta eskuzabalagoak dira, elkarteen lana errazteko, eta hein berean, jardueraren aitopen eta balorazio soziala egiteko.

II. Bestalde, 2004ko otsailaren 18an, indarrean sartu zen azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra. Oinarrizko Legeko izaera duenez, eragina egiten dio Espainiako Estatuaren barneko edozein Administrazio Publikoak emandako laguntza publiko orori, baita Udaletxeetan ere.

Aurretik esandako guztiarengatik, orain arte Berangoko Udalak emandako diru laguntza guztiak arautu dituen udal araudia zaharkituta eta eskasa gelditu da planteatutako errealitate berriari aurre egiteko.

III.- Hori guztiarengatik, Udal Ordenantza honek, orain arte indarrean egon den udal araudia indargabetuz, aipatutako esparru guztietan garatutako jarduera guztia barne hartu nahi du, eta aurrera pauso bat gehiago izango da hobekuntza prozesuan Udalerriko sistema finantzarioaren arrazionalizatzean. Horretaz gain, barne hartuko ditu estatuko legegintza berriak ekartzen dituen araudi eta zehazpen tekniko berriak.

Araudi berri hau administrazioeko jarduera guztia zuzendu behar duten printzipio orokorretan oinarritzen da, besteak beste, objektibotasunaren eta eraginkortasunaren printzipioetan, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko indarreko 30/92 Legeko 3. artikuluan aipatuta. Horretaz gain, diru-laguntzen esparru zehatzean, berdintasunaren, publizitatearen, gardentasunaren eta objektibotasunaren printzipioek agintzen dute.

## I. TITULUA

### **XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. Artikulua.—Helburua**

1. Ordenantza honen helburua Berangoko edo bere edozein erakunde autonomok emandako diru-laguntza arautzea da, udaleko eskumena osatzen edo ordezkatzeko duten erabilera publikoko edo interes sozialeko ekimenak eta jarduerak sustatzeko.

Ordenantza honen ondorioetarako, diru-laguntza gisa ulertzen da urteko izaerarekin edo modu zehatzean emandako diru guztia, pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatuen alde, onuren zuzeneko ordainik eman gabe.

#### **2. Artikulua.—Printzipio euskarriak**

1. Ordenantza honek arautzen duen dirulaguntzen emakida, beti ere, emakidaren ebazpena egiterakoan eskura dagoen aurrekontuaren eta mailegu egokiaren eta nahikoaren arabera baldintzatuta egongo da.

2. Dirulaguntzek boluntario eta aldi baterako izaera izango dute.

3. Aurretik Berangoko Udalak emandako diru-laguntzek ez dute eskatzaileen aldeko eskubiderik sortzen eta aurrekarietan ez dira kontuan hartuko diru-laguntza berri bat emateko irizpide erabakigarri gisa.

4. Diru-laguntzen emakidak ez du izaera zibileko, laboraleko, administratiboko edo beste motako kontratuko harremanik sortuko pertsona edo erakunde onuradunaren eta Berangoko Udalaren artean.

5. Ezingo da emandako diru-laguntzen kopurua igotzeko eskatu, hori justifikatzen duten baldintza bereziak badaude izan ezik, Udalaren balioztapenaren arabera.

6. Udalak ebaluatuko du bere babespean egindako jardueren emaitza, eta balorazio hori kontuan hartu ahal izango da informazio irizpide gisa, diru-laguntza berriak emateko edo atzera botatzeko.

7. Udal Araudi honen aplikazio-esparrutik at gelditzen dira, euren izaerarengatik Ordenantza honen xedearekin zuzeneko lotura ez duten laguntzak, eta Berangoko Udalak ematen dituen prestazioak indarreko Arandia betetzeko.

### **3. Artikulua.—Diru-laguntzen motak**

Ordenantza honetan aipatzen diren dirulaguntzak bi motatakoak izan ahalko dira:

a) Izaera arrunta edo urte izaerako dirulaguntzak, urte jakin baterako erakunde eskatzailearen ohiko funtzionamenduko programa osatzen duten jarduerak babesteko eta sustatzeko.

b) Ohiz kanpoko edo izaera zehatzeko diru-laguntzak, jarduera, proiektu edota gertaera zehatzak edo noizean behin ematen direnak babesteko eta sustatzeko.

### **4. Artikulua—Onuradun subjektuak**

1. Diru-laguntza arruntak edo urteko izaerakoak:

Diru-laguntza arrunta baten subjektua izan ahalko du, ohiko jarduerak sortutako gastuak ordaintzeko, Berangon bere helbide soziala edota bizileku iraunkorra duen eta kultura, kirola edo gizarte izaerako jarduera bat garatu nahi duen edozein pertsona juridikok. Aipatutako jarduera horiek, Ordenantza honen 11. artikuluaaren arabera, Berango Udalerriaren interesekoak izan behar dira, Berangoko Udalak burututako jarduerak hobetzeko, osatzeko edo ordezkatzeko.

Era berean, diru-laguntza arrunta bat jaso ahal izango dute nahiz eta nortasun juridikoa ez izan, euren helbide soziala Berangon duten eta diru-laguntzaren helburu diren proiektuak edo jarduerak egin ahal duten pertsona fisiko edo juridikoen taldeek, ondasun erkidegoen edo bestelako unitate ekonomikok edo ondare banatuak.

Eskatzailea Elkarte edo Fundazio izaera duen erakunde bat bada, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan eta Berangoko Elkartearen Udalerriko Erregistroan inskribatuta egon beharko da.

2. Ohiz kanpoko edo izaera zehatzeko diru laguntzak:

Kultura, kirol edo gizarte izaerako jardueraren bat garatu nahi duen edozein pertsona fisikok edo behar bezala inskribatuta dagoen pertsona juridikok diru-laguntza zehatz bat jaso ahal izango du. Ordenantza honen 11. artikulua araberako, jardueraren horiek Berangoko Udalerriaren interesekoak izan beharko dira, Udalerriko edo bere Erakunde Autonomoek egindakoak hobetzeko, osatzeko edo ordezkatzeko.

3. Ezingo dute udalerriko diru-laguntzarik lortu, Berangoko Udalerriko aurretik jasotako diru-laguntzaren bat justifikatzeko dutenek.

4. Ezingo dute ere diru-laguntzarik jaso euren zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzakoak egunean ez dituztenek.

## II. TITULUA

### EMAKIDEN PROZEDURA

#### **5. Artikulua.—Lehiakortasuneko Aldiberekotasuna**

1. 3. artikulua a) atalean araututako diru-laguntza arruntak emango dira lehiakortasuneko aldiberekotasuneko araubidearen bidez, aurkeztutako eskaeren konparazioaren bitartez, eta horien arteko lehentasuna ezarri ondoren, araudi honetan eta dagokion deialdian aipatutako balorazio irizpideen arabera.

2. Aurreko atalean aipatutako dirulaguntzak emateko deialdia Alkatetza Dekretuaren bidez egingo da, eta bertan kasu bakoitzeko prozedura arauak, balorazio eta ebazpen zehatzak ezarriko dira, Diru-Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 17. artikulua aplikatuz.

Deialdia Udalerriko Ediktuen Taulan argitaratuko da, eta udalerriko komunikabideen bitartez hedatuko da, deialdi berak egin dezakeen publizitatea alde batera utzi gabe.

3. Zuzenean eman ahal izango dira 3. artikulua b) atalean aipatutako izaera bereziko diru-laguntza zehatzak, hala nola, deialdi publiko baten bidez, izapidetzeko zailtasunak dituen edozein beste edozein gauza.

4. Era berean, zuzenean Berangoko Udalerriaren sail bakoitzaren urteko aurrekontuen araubideetan ezarritako diru laguntzak eman ahal izango dira, aipatutako diru-laguntzak arautzen dituzten hitzarmenetan ezarritako baldintzen arabera.

## **6. Artikulua.—Eskaeren Aurkezpena**

1. Eskakerak Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, deialdi bakoitzak ezartzen duen inprimakian, aldiberekotasun sistemaren bidez emandako dirulaguntzak baldin badira, edo gainontzeko eskaerentzat, araudi honen I. Eranskinean horretarako prestatutako inprimakian.

2. Aldiberekotasuneko izaera duten dirulaguntzak dagokion deialdiak ezarritako epearen barruan aurkeztu beharko dira.

3. Izaera puntuala duten proiektuen eta jardueren eta deialdiaren bidez ematen ez diren dirulaguntzak aurkeztu beharko dira, gutxienez, jarduera hasi baino hilabete bat lehenago.

Ohiz kanpoko egoeretan edota larrialdizkoetan, epeen eta ebazpenen irizpideak aipatutako egoeren arabera egokitu daitezke. Ohiz kanpo egoeratzat edo larrialdizko laguntzat jotzen dira guda-gatazketatik, egoera katastrofikitik edo lehen mailako premiak asetzetik eratorritakoak, eta, bat-batean sortzeagatik aipatu ez den beste edozein. Tokiko Gobernu Batzordeak aipatutako proiektuen ohiz kanpoko izaera edo larrialdia ezarriko du.

4. Eskakerak aipatutako epez kanpo aurkezten badira, baliogabetu ahal izango dira eta artxibatuko dira inolako izapiderik egin gabe.

## **7. Artikulua.—Dokumentazioa**

a) Dokumentazio hau entregatu beharko da lehiakortasuneko aldiberekotasun sistemaren bidez eman beharreko dirulaguntzekin batera: deialdi ezartzen dena (gutxienez, hurrengo atalean aipatzen dena).

b) Zuzenean ematen diren izaera puntualeko jardueren edo proiektuen dirulaguntzei dagokienez, ondoren aipatzen den dokumentazioa entregatu beharko da:

- Eskatera aurkeztu duenaren NAN-ren fotokopia.
- Erakunde juridikoa izanez gero, horren IFK-ren fotokopia.
- Dirulaguntza zehatza eskatzen den jarduera edo gertaeraren proiektu xehekatua, gutxienez honako hau aurkeztuz: proiektuaren deskripzioa, jarduera zuzenduko den herri taldea eta lortu nahi diren helburuak. Espresuki aipatu behar dira Berango Udalerriarentzat interesgarri izan daitezkeen jardueraren alderdiak eta hori egingo den lekuak eta egunak.
- Dirulaguntza eskatu den jarduerarekin edo proiektuarekin zerikusia duten jardueri buruzko txostena, eskatzaileak dirulaguntza eskatutako aurreko urtean edo urteetan eginak.

- Eskatera aurkeztutako aurreko urtearen diru-sarreraren eta gastuen balantzea, eta eskaera egindako urtearen aurrekontua, diru-laguntza eskatutako jarduera edo proiektuari dagokionez.

Eskatzailea irabazi-asmorik gabeko Elkarte edo Fundazio bat bada, horretaz gain, dagokion Erregistroan edo Erregistroetan inskribatzearen ziurtagiria entregatu beharko du, 4-1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretaz gain, erakundearen Estatutuen kopia eman beharko du, inskribatutako Erregistroan behar bezala zigilatuta.

- Era berean, dagokion Ogasuneko ziurtagiria aurkeztuko da, eskatzaileak bere zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko. Zerga betebeharrak bakarrik Berangoko Udalarekiko duten Elkartei dagokionez, eskaerarekin batera, horri buruzko berariazko aitortza entregatuko dute, hartara, Udalak, ofizioz, aipatutako ziurtagiria emango du.
- Eskatzaileak, indarrean dagoen legeriaren arabera, Gizarte Segurantzarekin derrigorrezko harremana badu, Gizarte Segurantzaren Diru-Zaintza Nagusiak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko du, horrekin dituen zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko.
- 30.000 eurotik gorako obrak egiteko diru-laguntzen eskaerei dagokionez, eskaerarekin batera betearazpen hiru aurrekontu desberdin entregatuko dira. Merkeena aukeratu ez denean, hori egiteko arrazoia egiaztatzen duen ziurtagiria entregatu behar da.

c) Udalak eskaeraren aurreko urtean antzeko diru-laguntza entregatu dien eskatzaile, pertsona fisiko edo juridiko guztiek ez dute aldatu ez diren dokumentuak berriro aurkeztu behar, eta euren eskaeretan goera horren berri eman beharko dute.

d) Jarduera berarentzat paraleloki eskaera bat aurkeztu bada, beste edozein erakunde publikoan edo pribatuan, Berangoko Udalean egindako eskaeran horren berri eman beharko da, eta bertan aipatu behar da finantzazio eskaera egindako erakundea edo erakundeak, eskatutako diru-laguntzaren kopurua eta dagokionean jaso dela.

e) Bai diru-laguntza arruntei dagokionez, eta bai izaera puntualeko jarduera edo proiektuen diru-laguntzei dagokionez, artikulua honetan aipatutako dokumentuez eta datuez gain, Udalak, kasu bakoitza aztertzeko, eskatzaileari egoki deritzon beste edozein dokumentazio osagarri eska dakioko, aurkeztutako proiektuarekin batera.

## **8. Artikulua.—Eskakerak atzera bota**

Ez dira kontuan hartuko azalpen txostena aurkezteko edota Leioako Udalak aurreko urtetan emandako diru-laguntzak egiaztatzeko duten pertsonak edo erakundeak egindako eskaerak.

## **9. Artikulua.—Osatu gabeko edo okerreko eskaerak**

Aurkeztutako eskaera edo entregatutako dokumentazioa osatu gabe badaude edo zuzendu beharreko akatsaren bat badute, eskatzaileari agindeia egingo zaio, 10 asteguneko epean, agindeia jakinarazi ondorengo egunetik hasita, dena delako akatsa zuzentzeko. Horretaz gain, ohartaraziko zaio ez baldin baduela egiten, bere eskaera baliogabetuko dela.

## **10. Artikulua.—Erakunde Izapidegilea**

Lehiakortasuneko Aldiberekotasunaren bidez, entregatu beharreko diru-laguntzen deialdiak, kasu bakoitzean, erakunde izapidegilea izendatuko du.

Zuzeneko diru-laguntzei dagokienez, izapidegilea arloko administrazio unitatea edo dagokion udal saila izango da, dirulaguntza jaso beharreko proiektu edo jardueraren arabera.

## **11. Artikulua.—Balorazio Irizpideak**

1. Lehiakortasuneko Aldiberekotasunaren bidez, eman beharreko diru-laguntzei dagozkien deialdi bakoitzean ezartzen diren balorazio irizpide zehatzez gain, aurkeztutako proiektuak baloratzeko, ondoren aipatzen diren faktoreak hartuko dira kontuan:

- Proposamena egindako pertsonak edo erakundeak Berango Udalerrian duen lotura edo errotzea.
- Eskatzaileak garatutako jardueraren jarraipena.
- Proiektuaren orijinaltasuna eta aukera, Udalaren babespean egiten ari diren antzeko jardueri dagokionez.
- Eskaeran aipatutako helburuen eta proiektuaren arteko lotura.
- Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, jarduera garatzeko beharrezko baliabideei eta Udalak eskura izateko ahalmenari dagokionez.
- Garatutako jardueraren kostuak.
- Eskatzaileak dituen baliabide ekonomiko propioak.
- Bestelako finantzazio baliabideetara jotzeko zailtasuna edo beste erakundeengandik jasotako finantzazioaren urritasuna.
- Antolaketaren esfortzua, bai gizakiaren ikuspuntutik eta bai jarduera garatzeko erabilitako egitura edota ekonomiaren ikuspuntutik.
- Jardueraren eragina gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatzeko.



— Jardueraren garapena EAEn ofizial diren bi hizkuntzak erabiliz.

2. Dagokion arlo edo sailak baloratuko du proiektu bakoitza, eta egoki deritzon pertsoneri edo erakundeei aholkularitza eskatzerik izango du.

## **12. Artikulua.—Diru-laguntzaren zenbatekoa**

1. Udalak, urtero, aurrekontuko partida bat erabiliko du dirulaguntzak emateko. Horien emakida egiteko ebazpena egindako unean eskura dagoen mailegu egokia eta nahikoaren arabera izango da.

2. Lehiakortasuneko Aldiberekotasunaren sistemaren bidez eman beharko dirulaguntzei dagokionez, dagokion deialdiak ezarriko du aipatutako deialdiarentzat eskura dagoen aurrekontuko mailegua.

3. Ematen den diru-laguntzak, ezingo du, dena delako jarduerarentzat ezarritako aurrekontuaren kopuru guztia baino gehiago izan.

4. Araudi honek aitortutako dirulaguntzek bat egin ahal izango dute beste erakunde publiko edo pribatuek helburu berarekin emandakoekin. Hala ere, ezingo da gainera finantzaziorik egon, hau da, emandako diru-laguntzaren kopurua, beste entitatek emandakoarekin batera jarduera guztiaren zenbatekoa baino gehiago izan.

Hainbat diru-laguntza pilatzeagatik gainera finantzazioa izanez gero, onuradunak Berangoko Udalak emandako dirua itzuli beharko du, Udalak, finantzatutako osoaren arabera, emandako proportzioan.

## **13. Artikulua.—Ebazpena**

1. Lehiaketa publikoaren bidez eman beharreko diru-laguntzei dagokionez, Tokiko Gobernu Batzarra izango da ebazpena egiteko erakunde eskuduna, 10. artikuluan aipatutako erakunde izapidegileak eskatuta eta espedientea aztertu ostean.

2. Zuzeneko diru-laguntzen eskaerak Alkatetzaren Dekretuz ebatziko dira, eta dagokionean, eman beharreko zenbatekoaren arabera, Berangoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzordearen Erabakiaren bidez, 10. artikuluan aipatutako erakunde izapidegileak proposamena egin ondoren, eta espedientea aztertu ostean.

3. Ebazpena egiteko gehienezko epea honakoa izango da:

— Sei hilekoa, dagokion deialdia argitaratu ondorengo egunetik zenbatuta, lehiakortasuneko aldiberekotasunaren sistemaren bidez entregatu beharreko diru-laguntzei dagokionez.

— Bi hilekoa, eskaera aurkeztu ondorengo egunetik zenbatuta, zuzeneko dirulaguntzei dagokionez.

4. Aurreko epeak bukatzen badira, espresuki ebazpena egin gabe, ulertuko da eskaera atzera bota dela, ondoren, espresuki, horri buruzko ebazpena egiteko aukera alde batera utzi gabe.

5. Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan izandako aldaketa guztiek horretarako ebazpena Alda dezakete.

#### **14. Artikulua.—Diru-laguntzaren ordainketa**

Diru-laguntza ordainduko da, onuradunak babestutako jarduera edo proiektua burutu dela egiaztatu ondoren.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa xedatu arren, adierazitako egiaztapena egin aurretik ordaindu ahal izango da, urteko diru-laguntza edo ohiko jarduera bat bada, edo Berangoko Udalaren diru-laguntza nahitaezko finantzazioa baldin bada jarduera garatu ahal izateko, finantzazio baliabideak oso urriak direlako.

### **III. TITULUA**

#### **ONURADUNAREN BETEBEHARRAK**

#### **15. Artikulua.—Onuradunaren betebeharrak**

Araudi honetan arautzen diren dirulaguntzak jaso behar dituzten pertsonak edo erakundeek betebehar hauek bete beharko dituzte:

- Ordenantza honetan aipatutako arau guztiak eta dirulaguntza entregatzeko egiten den ebazpenean ezarritako baldintza partikularrak betetzea.
- Emandako diru-laguntza onartzea. 7 eguneko epean, Emakidaren jakinarazpeneko egunetik hasita. Pertsonak edo erakundeak ez baldin badiote espresuki eta idatziz jasotako diru-laguntzari uko egiten, ulertuko da onartu dutela.
- Jasotako diru-laguntza eskaeran aipatutako helburuarekin erabili.
- Diruz lagunduriko jarduera garatu ahal izateko baimen guztiak lortzea.
- Indarreko araudia betetzea, jarduera eta emanaldi publikoak antolatzeari dagokionez (emanaldi publikoei eta olgetarako jardueri buruzko azaroaren 10eko Eusko Parlamentuko 4/95 Legea eta gertaera horiek aldi baterako arautzen dituen Udal Ordenantza), hala nola, aztergai den esparruan aplikatu daitekeen estatuko edo autonomiaren gainontzeko araudia.

- Diruz lagunduriko jarduera dela eta, egiten diren sustapen elementuetan karteletan, testuetan eta dokumentuetan (denak EAEn ofizial diren bi hizkuntzetan egon behar dira) Berangoko Udalaren babesa aipatzea, eta kartelak ipintzeari buruzko udal araudia betetzea.
- Udalak eskatutako laguntza guztia ematea, diruz lagunduriko jarduera edo gertaera hobeto garatzeko. Horri uko egiten bada, egindako eskaera artxibatu daiteke, edo emandako diru-laguntza baliogabetu edo itzultzeko eskatu, eta dagozkion isunak jarriko dira.
- Helburu berdinarekin lortutako beste laguntza ekonomikoaren berri ematea, bai erakunde publikotik eta bai pribatutik eratorrita, beti ere, jasotako zenbatekoa espresuki aipatuko delarik.
- Berangoko Udalarekin kolaboratzea, eskatuz gero, aldi baterako azterketak, inkestak edo estatistikak egiteko.
- Berangoko Udalak antolatutako jarduera eta ekitaldietan kolaboratzea, ordenantza honetan araututakoaren eremuan, udalak hala eskatuz gero.
- Udalak egindako egiaztapen jarduera guztiei men egitea.
- Gertaera zehatzak egiteko emandako puntual izaerako dirulaguntzei dagokionez, horretaz gain, proiektuan aurreikusitako jardueretan emandako edozein aldaketaren berri eman beharko da, hura burutu aurretik, Udalak egin nahi diren aldaketak baimentzeko edo atzera botatzeko.
- Jasotako zenbateko guztia, Ordenantza honen 17. Artikuluaren arabera erabili dela egiaztatzea.

## **16. Artikulua.—Erantzukizun Zibila**

Pertsona edo erakunde eskatzailea diruz lagunduriko jardueraren antolatzaile bakartzat joko da, beraz, hura erantzule zibil bakarra izango da aipatutako jardueraren garapen arruntetik edo berezitik sortu daitekeen ondareko edozein erreklamazioaren aurrean. Horrelakoetan, Udala aldi baterako erreklamazio horien kanpo gelditzen da.

## **17. Artikulua.—Diru-laguntzaren egiaztatzea**

1. Diruz lagunduriko jarduera bukatzen denean, dokumentu bat entregatu beharko da diru-laguntza behar bezala erabili dela ziurtatzeko.

2. Horretarako entregatu beharreko dokumentazioa, gutxienez, honakoa hau izango da, dagokion deialdiak eskatu dezakeen dokumentazio zehatzaz gain, lehiakortasuneko aldiberekotasunaren bidez entregatutako diru-laguntzei dagokionez:

- Garatutako jardueraren txostena.
- Jarduerak sortutako diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
- Jarduera dela eta sortutako gastuen ordainagiri orijinalak, emandako diru laguntza osoa bete arte. Aipatutako ordainagiriak fakturak eta egiaztatze balioa duten dokumentuak izango dira, (merkataritzarako zirkulazio juridikoan baliozkoak izan behar dira).
- Diruz lagunduriko jarduera edo gertaera dela eta argitaratu diren liburuxken, kartelen, liburuen, bideoen, CD-Rom-en eta abarren ale bat.

3. Ziurtatzeko gehieneko epeak hauek izango dira:

a) Lehiakortasuneko Aldiberekotasunez bidez emandako diru-laguntzei dagokionez, epea dagokion deialdian ezartzen dena izango da. Inolaz ere ezin da diru-laguntza eman zen hurrengo urteko martxoaren 31tik gorakoa izan.

b) Zuzeneko diru-laguntzei dagokionez, gehieneko epea 45 egun izango dira, sustatuko jarduera bukatzen denetik hasita.

4. Bai diru-laguntzen mota batean zein bestean, jarduera beste laguntzeko edo erakunde publiko edo pribatuko beste baliabideekin ere finantzatu denean, ziurtatu beharko da horien jatorria eta diruz lagunduriko jarduerari emandako aplikazioa.

5. Onuradunak aurkeztutako jatorrizko dokumentuak behar dituztenean, horiek fotokopia batekin entregatuko dira. Fotokopia hori parekatuko da eta jatorrizkoak zigilatu ondoren itzuliko dira.

6. Aurkeztutako ziurtagiri guztiek dirulaguntza emango den urte ekonomiaren barruko data eduki behar dute.

## **18. Artikulua.—Diru-laguntza itzuli**

1. Jasotako diru-laguntza, hura jaso zenetik itzultzea erabakitzen den arte sortutako atzerapen interesekin batera, Udaleko Diru-kutxetara itzuliko da honako egoeraren bat ematen denean:

- Jasotako diru-laguntza ez erabiltzea aipatutako helburuarekin.
- Diru-laguntza jaso izatea horretarako baldintzak bete gabe.
- Onuradunari leporatu dakizkiokkeen arrazoiak direla eta, Araudi honen 15. artikuluan aipatutakoa betebeharrak ez betetzea.
- Ordenantza honen 17. Artikuluan ezarritako ziurtagiriak ez egiaztatzea. Gastuaren ziurtatze partzial bat egiten bada, itzuli beharko da ziurtatu ez den zatiarekin bat egiten duen laguntzaren zatia.

- Jardueraren kostu errealari dagokionez, gehienezko finantzazioa sortzea. Horrelakoetan itzuli beharko da soberakinaren batuketa.
- Beste erakunde publikoen edo pribatuen diru-laguntza jasotzeagatik gaisetiko finantzazioa egotea. Horrelakoetan, onuradunak gainditutako zenbatekoa Berangoko Udalari itzuli beharko dio, azken horrek finantzatutako guztiarekin dagokionez emandako zenbatekoaren proportzioan.
- Onuradunek diru-laguntza emateari buruzko ebazpenean ezarritako baldintzak edo betebeharrak ez betetzea, jarduera egiteko erari edo proiektua burutzeari dagokionez. Horrelakoan, kontuan hartuko da arau-hausteen larritasuna itzuli beharreko kopurua zehazteko, ekitate eta proportzionaltasun printzipioei jarraiki.

2. Itzuli beharreko zenbateko guztia edo partziala erabakitzeko, proportzionaltasun eta ekitate printzipioak hartuko dira kontuan eta kasu zehatz bakoitzaren baldintzei egokituko zaizkie.

3. Dirua itzultzea erabakitzen duen ebazpena diru-laguntza eman zuen erakunde berberak egingo du.

4. Itzultzeari buruzko espedientea Herri Administrazioetako Araubide Juridikoari eta Herri Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen VI. Tituluan ezarritako prozedura arauen arabera izango da, eta bertan interesatuari entzunaldiko izapidea emango zaio 15 asteguneko epeaz.

5. Diru-laguntza itzultzeko beharra egiaztatu ondoren, erakunde eskudunak horri buruzko ebazpena egingo du. Ebazpen hori arrazoitua izango da, eta bertan aipatuko da dirua itzultzeko arrazoia, itzuli beharreko dirua eta boluntarioki dirua sartzeko epea. Horretaz gain ohartaraziko zaio, dirua horretarako ezarritako epearen barruan ez baldin baduela entregatzen premiamendu bidez egingo dela.

#### IV. TITULUA

### ZEHAPEN ARAUBIDEA

#### **19. Artikulua.—**

Urrapen eta isunen araubidea izango da Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. Tituluan ezarritakoa eta Euskal Herriko Herri Administrazioen Zehapen Ahalmenaren otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoa, hala nola, dagozkien garapen araudietan eta aplikatu daitezkeen gainontzeko legeetan aplikatutakoa.

### *Lehen Xedapen Gehigarria*

Udal Ordenantza honetan aipatu ez denari dagokionez, aplikatuko da Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta aplikatu daitezkeen garapen edo sektoreko gainontzeko araudiak.

### *Bigarren Xedapen Gehigarria*

Dagokion arloko buruak proposatuta, Alkateari baimena ematen zaio beharrezko xedapen guztiak emateko, Udal Ordenantza hau hobeto garatzeko.

### *Xedapen Indargabetzailea*

Udal Ordenantza hau indarrean sartzerakoan, baliogabetuko dira aurkan jartzen zaizkion maila bereko edo gutxiko udal xedapenak.

### *Azken Xedapena*

Ordenantza hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean Osorik argitaratu eta 15 eguneko epean.

En Berango, a 7 de febrero de 2008.—La Alcaldesa

**I ERANSKINA**

**ANEXO I**

**UDAL DIRU-LAGUNTZA ZUZENAREN ESKAERA**

**SOLICITUD DE SUBVENCIÓN MUNICIPAL DIRECTA**

**ESKATZAILEAREN IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS DE LA PERSONA SOLICITANTE**

.....

**NAN / DNI:** .....

**JAKINARAZPENAK EGITEKO HELBIDEA / DOMICILIO A EFECTO DE NOTIFICACIONES:**

.....

**HERRIA / POBLACIÓN :** .....

**TELEFONOA / TELÉFONO :** .....

**JARDUTEN ARI DIREN IZAERA / CARÁCTER CON EL QUE ACTÚA** (bere izenean edo erakunde baten ordezkari / *en nombre propio o en representación de una entidad*):

.....

(Lauki hau bakarrik beteko da eskatzailea pertsona juridikoa izanez gero / *Este recuadro se rellenará únicamente en el caso de que el/la solicitante sea una persona jurídica*)

**ERAKUNDE ESKATZAILEAREN IZENA / NOMBRE DE LA ENTIDAD SOLICITANTE:**

.....

**IFK / CIF:** .....

**JAKINARAZPENAK EGITEKO HELBIDEA / DOMICILIO A EFECTO DE NOTIFICACIONES:**

.....

**HERRIA / POBLACIÓN :** .....

**TELEFONOA / TELÉFONO :** .....

**ORDEZKARI LEGALA / REPRESENTANTE LEGAL :** .....

**ESKAERAREN GAIA / OBJETO DE LA SOLICITUD :**

.....  
.....  
.....  
.....

En Berango, a      de      de 20  
Berango, 20      (e)ko      ren      (e)an

FIRMA DE LA PERSONA PRESENTANTE  
ESKAERA EGITEN DUEN PERTSONAREN SINADURA

## ESKAERAREKIN ENTREGATZEKO DOKUMENTAZIOA

- Eskaera aurkezten duen pertsonaren NAN fotokopia.
- Erakundearen IFK fotokopia, erakunde juridikoa izanez gero.
- Diru-laguntza eskatu den jardueraren eta gertaeraren proiektu xehekatua. Barnean aipatu beharko da, gutxienez, proiektuaren deskripzioa, nori zuzentzen den jarduera, lortu nahi diren helburuak, Berangoko Udalarentzat duen alderdi interesgarria eta jarduera antolatuko den tokiak eta egunak.
- Diru-laguntza eskatu den jarduerarekin edo proiektuarekin zerikusia duten jardueri buruzko txostena, eskatzaileak diru-laguntza eskatutako aurreko urtean edo urteetan eginak.
- Eskaera aurkeztutako aurreko urtearen diru sarreren eta gastuen balantzea, eta eskaera egindako urtearen aurrekontua, diru-laguntza eskatutako jarduera edo proiektuari dagokionez
- Eskatzailea irabazi asmorik gabeko Erakunde edo Fundazio bat bada, horietaz gain, dagokion Erregistroan edo Erregistroetan inskribatzearen ziurtagiria entregatu beharko du. Horretaz gain, erakundearen Estatutuen kopia ere entregatu beharko du, inskribatutako Erregistroan behar bezala zigilatuta.
- Era berean, dagokion Ogasuneko ziurtagiria aurkeztuko da, eskatzaileak bere zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko. Zerga betebeharrak bakarria Berangoko Udalarekiko duten Elkarteei dagokionez, eskaerarekin batera, horri buruzko berariazko aitortza entregatuko dute, hartara, Udalak ofizioz, aipatutako ziurtagiria emango du.
- Eskatzaileak, indarrean dagoen legeriaren arabera, Gizarte Segurantzarekin derrigorrezko harremana badu, Gizarte Segurantzaren Diru- Zaintza Nagusiak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko du, horrekin dituen zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko.
- 30.000 eurotik gorako obrak egiteko dirulaguntzen eskaerei dagokionez, eskaerarekin batera betearazpen hiru aurrekontu desberdin entregatuko dira. Merkeena aukeratzen ez denean, hori egiteko arrazoia egiaztatzen duen ziurtagiria entregatu behar da.

Udalak eskaeraren aurreko urtean antzeko diru-laguntza entregatu dien eskatzaile, pertsona fisiko edo juridiko guztiek ez dute aldatu ez diren dokumentuak berriro aurkeztu behar, eta euren eskaeretan egoera horren berri eman beharko dute.

Jarduera berarentzat paraleloki eskaera bat aurkeztu bada beste edozein erakunde publikoan edo pribatuan, Berangoko Udalean egindako eskaeran horren berri eman beharko da eta bertan aipatu behar da finantzazio eskaera egindako erakundea edo erakundeak, eskatutako diru-laguntzaren kopurua eta dagokionean jaso dela.

Bai diru-laguntza arruntei dagokionez, eta bai izaera puntualeko jarduera edo proiektuaren diru-laguntzei dagokionez, artikulu honetan aipatutako dokumentuez eta datuez gain, Udalak, kasu bakoitza aztertzeko, eskatzaileari egoki deritzon beste edozein dokumentazioa osagarri eska dakioke, aurkeztutako proiektuarekin batera.

### **Eskaerak aurkezteko tokia eta epeak:**

Eskaerak Udalaren Erregistro Orokorrean entregatu beharko dira, gutxienez, jarduera garatzen hasi baino hilabete lehenago.